

egun-pasa

Urdazubi eta Zugarramurdiko leizeen erakargarritasuna

Zugarramurdiko leizeak izan dira betidanik ezagunenak oro har. Haien iragana misterioz betea eta sorginkeriarekin lotua izateak jendearen interesa piztu izan du.

Urdazubiko leizeak, ordea, ikusgarriagoak dira, argitasun handiagoa dute, eta jendearen bisitaldiak hartzeko hobeki

prestatu dituzte. Ikaburu leizeak (hala dute izena) Urtxuma ibaiak arroaren barruan egiten duen ibilbidea dira. Ibilbide horretan, ibaiak galeria ikusgarriak ireki ditu leizeetan. Sarrera Matxingonea baserriaren alboan dago, Leorlaz auzoan.

Zugarramurdikoak irekiagoak dira, eta, barruan, Infernuko Errekaren ibiliak zabaltzen du pasillorik luzeena. Gainerakoak txikiagoak dira.



EGUNKARIA

Nola iritsi: **Ipar Euskal Herritik, Sarara joan; Hegoaldetik berriz, Irun-Elizondora**

LEITZA. Nafarroako Bertsolari Txapelketa: **Xabier Legarreta 'Arano', Xabier Silveira, Manolo Arozena, Xabier Terreros.** Bihar, arratsaldeko 17:00etan, Zinemian.

LODOS. Nafarroako Bertsolari txapelketa: **Josema Leitza, Ekintza Landa, Aritz Saragueta, Nerea Bruño, Joxe Juan Zubieta Etxabe, Oskar Eztanga.** Gaur, 18:00etan, kultur etxean.

dantza

IRUÑEA. Ballet Nacional de España. Gaur eta bihar, arratsaldeko 20:00etan, Gaiarre Antzokian, koreografia hauek egingo dituzte: *Oripandó, Luz de alma, Mensaje, Nereidas* eta *Soledad*.

MIARRITZE. 'Romeo et Juliette'. Gaur, gaueko 21:00etan, Gare du Midi aretoan, Les Ballets de Montecarloren eskutik.

ikus-entzunezkoak

ARROSA. 'La variete si je mens 2'. Gaur, gaueko 21:00etan, Gazteen Etxean.

DONOSTIA. 'Banpiro Txikia' filma. Gaur, Lugaritz Kultur Etxean, arratsaldeko 17:00etan.

DEBA. 'Camboya-Birmania' diaporama. Gaur, arratsaldeko 18:30ean, Zuhatza Euskara Elkarteak antolatuta.

ELORRIO. 'Algo que contar'. Gaur, gaueko 22:30ean, Arriolan.

IRUN. 'El camino a casa' filma. Bihar, eguerdiko 12:30ean, Amaia Kzn.

hitzaldiak

ARIBE. Elkarriren Bake Konferentzia. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Aribeko Juntetxean, Victor Aierdiren eskutik.

BURLATA. 'Donostiako Udaltxistulari Taldea'. Gaur, arratsaldeko 18:00etan, Hilarion Eslava Musika Eskolan.

OIARTZUN. 'AHTren aurkako asanblearen hitzaldia'. Gaur, arratsaldeko 17:00etan, Arruagako Goiko Eskoletan.

bestelakoak

AGURAIN. Kiki, Koko, Moko

antzzeria

'Komeriaka' Gasteizko Principal antzokian (20:30ean)



EGUNKARIA

AITZPEA GOENAGA AKTOREA

«Semea aktore izatearen aurka dagoen amarena egingo dut»

Xabier Martin | DONOSTIA

Korrika Kulturalaren barruan, orain arte irrikaz itxaron den ekitaldia eskainiko dute gaur Gasteizen: *Komeriaka* lanaren emanaldia. Gaurkoa ez da estreinakoa izango; izan ere, Bilbon antzeztu zuten duela egun gutxi. Orduan arrakasta biribila lortu zuten, gaurko emanaldiaren inguruan ikusmin handia sortu da. Sei euskal aktorek beren teknika zabalduko dute bakarriketa komikoetan: Elena Irueta, Ane Gabarain, Maiken Beitia, Iñaki Beraetxe, Ramon Agirre eta Aizpea Goenaga ariko dira Gasteizen. Aizpea Goenaga lehen aldiz ariko da *Komeriaka*-n.

■ **Aktore bakoitzak bere istorioa kontatuko du gaur, betiere umorez betetako bakarriketetan. Aritu al zara noizbait modu horretan?**

Egia esan, ez, eta banuen gogoia, formula hori lehen aldiz Estatu Batuetan ikusita bainengoan, eta oso atsegin dut.

■ **Lan asko egin al duzu zure bakarriketa prestatzen?**

Egin dut zertxobait, bai. Entseguak beharrezkoak dira, jakina; testua ikasi, eta gurera egokitu, nolabait Patxo Telleriak idatzitako istorioa zurea egin behar baituzu.

■ **Zer kontatuko duzu zure istorioan?**

Semea aktore izatearen kontra azaltzen den amarena egingo dut. Hori da hari nagusia.

■ **Zenbateraino da istorio hori benetakoa?**

Ez dakit ba... Amatasuna, behintzat, begi bistan izan dut [haurdun dago, bost hilabetekoa].

■ **Korrika Kulturala amaitutakoan bakarriketa laburrok taulara- tzeo paradarik ikusten al duzu?**

Bai, egin daiteke halakorik. Izan ere, nik Bilbon ikusi nuen *Komeriaka* lehengoan, eta jendeak oso harrera ona eman zion. Bakarriketa komikoak direnez, barre-algara anitz entzun ziren. Formula horrekin bete-betean asmatu dela uste dut, eta, bidea ireki denez, aurrera erraz egingo da.

korrika kulturala

ARRIGORRIAGA. Bertso-saioa. Gaur, gaueko 22:00etan, pilotalekuan, Bizkaiko Txapelketako finalistak izanen dira.

AZKOITIA. Sutan Tan. Gaur, arratsaldeko 20:30ean, berdura plazan.

BAIGORRI. 'Bar Puerto, bazterreko ahotsak'. Bihar.

BASAURI. Txatunga Bembe. Gaur, gaueko 21:00etan, plazan, perkusio musika.

BILBO. Joseba Tapia, Zabaleta eta La Orchestre Dubouffai. Gaur, Errekaldeko Onki Xin elkartean, gaueko 21:00etan.

ELGOIBAR. 'Banpiro txikia' filma. Bihar, arratsaldeko 16:30ean, Herriko Antzokian.

ELIZONDO. 'Connera gure bihotzetan' liburuen inguruko solasaldia. Gaur, Arizkunenea kultur etxean, Julen Gabiria idazlearen eskutik, arratsaldeko 17:00etan.

ERMUA. Olinpiadak. Gaur, arratsaldeko 16:30ean, Herriko plazan.

GASTEIZ. 'Komeriaka' antzerki emanaldia. Gaur, Principal Antzokian, arratsaldeko 20:30ean, besteak beste, Ana Gabarain, Maiken Beitia eta Elena Iruetaren eskutik.

eta Flax. Gaur, Araba Euskaraz-en aurkezpene dela eta.

BILBO. Olgetan haur jaia. Bihar, Kafe Antzokian. Arratsaldeko 18:00etan, Martxel Magoa izanen da.

DONOSTIA. Gau On festa. Bihar, 18:00etan, Egia Kultur Etxean.

GETARIA. Zuhaitz eguna. Gaur, goizetik hasita, diaporama Alondigan, mendi iteera...

erakusketak

BILBO. 'Plasticman'. Martxoaren

HERNANI. Pilota desafioa **Hernani eta Goizuetaren artean.** Gaur, kiroldegian.

'Korrika 11 Hernanin'. Martxoaren 23an, bideo emanaldia tabernetan.

IRUÑEA. Mural margoketa eta txistorrada. Gaur, eguerdiko 12:00etan, Txantreako auzoan.

Kafe kontzertua. Gaur, arratsaldeko 17:30ean, Eguesibarko Zumardalea Elkarteak, Ibiriku.

KOARTANGO. Bertso-afaria: **Ohiane Perea eta Asier Otamendi.** Gaur, Bainuetxe zaharrean, gaueko 21:00etan.

LEKUNBERRI. Oskorri. Gaur, gaueko 22:30ean, pilotalekuan.

Txan Magoa. Gaur, arratsaldeko 20:30ean, Koskilla tabernan.

LIZARRA. '20 urte Korrika'. Gaur, Gure Hizkuntza Elkarteak, argazkiak, bideo emanaldia eta pintxoak, arratsaldeko 18:00etan.

SANTURTZI. Jon Maia eta Igor Elortza. Gaur, Bihotz Gaztea Elkarteak, 14:30ean, bertso-trama (bertso-bazkaria).

TREBIÑO. Peio Añorga ipuin kontalaria. Gaur, arratsaldeko 17:00etan hasiko da, herriko aretoan.

24a arte, Bilbao Arte aretoan, Iñaki Larrinberen eskutik.

EIBAR. Aitor Larrañagaren margolanak. Martxoaren 18a arte, Portalean.

ORDIZIA. 'Patxi Txiki 2001: Kuadro abstraktu baten istorioa'. Barrena Kultur Etxean.

ZARAUZ. Lore Agirrerren margolanak. Apirilaren 1a arte zabalik, Torre Luzeako aretoan.

Zarautzko presoek egindako lan erakusketa. Arrano Kabia Elkarteak tabernan.